

DELINEANTE PROIEKTUGILEA

LANPOSTUAREN ZEHAZTAPEN LABURRA

Lanpostu honen funtsezko egitekoa da esleituko zaizkion proiektuen edozein fasetako diseinu-, kalkulu- eta marrazketa-lanak egitea, bai eta dokumentazio teknikoa artxibatu eta kudeatzea ere

EGINKIZUN AZALPEN ZEHATZA

- Zuzenean hartzea urbanizazio-alorreko datuak.
- Horrelakotzat hartutako proiektuen garapenean parte hartzea (edozein fasetan hartu ahal izango du parte).
- Eskatzen zaion dokumentazio grafiko guztia sortzea, ezarriko diren diseinu-, antolaketa- eta plangintza-irizpideei jarraituz, kalitatez eta epe barruan. Marrazketarako tresna informatikoak eta bulegotikako tresnak erabiliko ditu horretarako.
- Dokumentazio grafikoa eta teknikoa kodetzen, artxibatzen eta kudeatzen parte hartu eta laguntzea, ezarriko diren arau eta prozedurei jarraituz.
- Lan teknikoak errazteko balioko duten fitxategi informatikoak sortu eta mantentzea.
- Eraikin, azpiegitura eta instalazioei buruzko datu-baseak sortu eta mantentzea ordenagailu bidez.
- Ardura hartzea bere esku dauden eta zaindu behar dituen ekipoen erabilera egokiari dagokionez.
- Bere jarduerari buruz behar diren txostenak egitea, aldian-aldian edo hala eskatzen zaionean
- Lana etengabe hobetu ahal izateko ezarriko diren banakako eta taldekako prestakuntza-planetan parte hartzea.